

# ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko ekainak 20 · 1359. zenbakia

# SANJUANAK 2025

## HAUNDI PASATZEKO IRRIKITAN

EUKI
LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA
www.euki.com 943 20 42 91
Sanjuan zoriontsuak






BEREHALAKO ENTREGA
AZKENEKO ETXEBIZITZAK

Loiola

Informa zaitez
www.loiola.com
900 102 220

# Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus




25 urte bete ditu aurten Kokein talde eibartarrak eta Sanjuanak inoiz baino gehiago ospatuko ditu. Batetik, gaur gauean kontzertua eskainiko baitu Untzagan; eta bestetik, San Juan bezperan omenaldia jasoko duelako, eguerdian txupinazoa botaz eta gauean San Juan sua piztuz.

@etakitto

eta kitto!
euskara elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander Fernandez, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINUA**
Maku Oruezabal
**MAKETAZIOA**
...eta kitto! astekaria
**HIZKUNTZA ARDURA**
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Ander Fernandez
**TELEFONOA**
943 20 67 76

**AZALA**
Eibarko Udala
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado
**TIRADA**
7.800 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak

### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratwzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeko eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

# Hortik esanak

Su Ta Gar-ek heavy metala euskarara ekarri du; euskara hutsean kantatzen dute, beti egin dute euskaraz. Erresistentzia faktore bat izan da hori. Gaztelaniaz egin zezaketen, Espainiako Estatuan arrakasta handiagoa edukitzeko. Beste hitz batzuk ere erabil zitzaketen, beste hitz ez hain borrokalariak... Baina hori da, justu, haien ezaugarria: borrokalari izaera, heavy metala, euskara... Existitzen ez zen eszena bat sortu zuten Su Ta Gar-ekoek. 38 urte aguantatu dute, Euskal Herrian lehen lerroan; hori gertatu da kalitate handia daukatekako, eta oso teknikoak direlako. Estilo propioa izan arren, balada heavyak ez dira falta izan, trash metal asko dute, gitarra joko asko, bateria zapaltzailea...

**URKO ANSA, musika kritikaria**

Hainbat arrakalaz hitz egiten da, isildu barik; hor daude arrakala digital ekonomikoa, edo generoarena... Baina gure arazo nagusiena beste arrakala batean dago: mundurako prestatu behar gaituen eskolaren eta munduaren beraren artekoan. Orain arteko desberdintasuna jaiotzerakoan zenuenak, herentziatik jasotakoak... aurretiko aberastasunaren banaketak markatzen du. Teknologiak eragindako aldaketak ekarriko digun arazoa da desberdintasun gehiago izango dugula, edo beste era batekoa. Desberdintasun zaharraren aurrean, eskola paisaiaren parte da; berriaren aurrean, irtenbidearen parte izan daiteke edo arazoaren parte bihurtu.

**MARIANO FDEZ. ENGUITA, Hezkuntzan ikerlaria**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**PIKULUZE→** Hitzontzia, berritsua. “Beste asko bezela, piku-luziak galdu eban”.

**PIL-PIL→** Janariak su motelean, poliki-poliki egostean sortzen dan zarataren onomatopeia. “Bakillaua pil-pillian, etxekoandriak ipintzen dakixan erara”.

# Argazki zaharra

## 1964



### Txistularien topaketa Eibarren

Argazkian ikusi daitekeen moduan, urte horretako irailaren 27an gure herrian egin zen txistularien bilkuran jendetza elkartu zen Untzagan, batzuk txistua jotzeko eta beste batzuk, berriz, musikarekin gozatzeko.

## Farmaziak

**BARIXAKUA 20**
**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

**ZAPATUA 21**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**DOMEKA 22**
**EGUNEZ | Morgado** (San Agustin, 3)

**ASTELEHENA 23**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**MARTITZENA 24**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**EGUAZTENA 25**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**EGUENA 26**
**EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

**BARIXAKUA 27**
**EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)

**GAUEZ BETI,** 2025ean,
**Lekunberri** (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 70 84 24 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Kirol Patronatoa | 943 20 32 40 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 54 39 38 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Hildakoak

- **Alberto Ugarte Fernandez de Maruri**. 62 urte. 2025-06-11.



## Sorbak bedeinkatzeko meza egingo dute San Juan egunean Azitaingo elizan

Aurten ere sorbak bedeinkatzeko meza ospatuko dute Azitaingo elizan, San Juan egunean, 10:30ean. Eibartar askok eusten diote ohiturari: "Bedeinkatutako sorbak etxe eta baserrietako ateetan ipintzen dira, hurrengo urteko San Juan bezperako suan erre arte. Udaren hasieran bedeinkatzen ditugun sorbek baserri eta naturarekin daukagun lotura gogoratzen digute eta, fededunok, eurengandik jasotzen dugunarengatik eskerrak eman eta zaintzeko konpromisoa hartzen dugu horrela".



## Parrokiako koruak Karmelitetan abestuko du ekainaren 23an eta 24an

Parrokiako abesbatzak Sanjuanetan dituen bi egun handiei eutsiko die aurten ere. Horrela, San Juan bezperan, arratsaldeko 19:00etan hasita, koruak Salbea eta San Juan Himnoa interpretatuko ditu. Eta San Juan egunean, hor eguerdiko 12:00etatik aurrera, parrokiako abesbatzak abestutako mezan izango da parte hartzen. Ekitaldi biak Karmengo parrokian izango dira. Gaur egun korua 30 bat lagunek osatzen dute.

## Untzaga gizarte zentroak antolatutako musika topaketa egingo da bihar Coliseon

Untzaga gizarte zentroak antolatutako musika topaketa egingo da bihar Coliseon, 12:00etan. Lorea Ojangurenek zuzentzen duen Untzagako Abesbatzak, eta Nahaste Music Group bertako kitarra taldeak, aurten perkusioaren laguntzarekin hartuko dute parte, Mutrikutik etorriko den Anaiarte Euskal Etxeko Abesbatzarekin batera. Kalitatezko jai giroko kontzertua izango dela aurreratu dute Untzaga zentrotik, eta eibartar guztiak gonbidatu nahi dituzte. Sarrerak 3 euro balio du.



EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta, 20
Espezialistak plater prestatu eta haragi bikainetan
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69
@Oberenaharategia
OBERENA HARATEGIA

## Eskola Kirolerako aurrematrikula hilaren 22ra arte egin daiteke



Eskolatik kanporako kirol-eskaintza Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko haur guztientzat da eta, arduradunen berbetan, "haurrek kirol mota desberdinak ezagutzeko aukera paregabea da". Aurrematrikula ekainaren 22ra arte egin daiteke, www.eibareskolakirola.eus webgunean. Urte osorako prezioa 100 eurokoa da (DBE hartzaileentzat doan). Informazio gehiagorako, Oihane Sarasketa koordinatzailearekin kontaktuan jar daiteke, eibareskolakirola@gmail.com helbidera idatzita edo 663 006 186 telefono zenbakira deituta.

## 60 erosketa-txartel oparituko dituzte, Eibarren erostea saritzeko





Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonu-txartelen kanpainarekin bat egiten dutenek saria irabazi dezakete, bezeroen artean 60 txartel zozketatuko dituzte eta ( 50 eurokoa bakoitza). Gainera, "elkartearen txartelarekin ordainduz gero saria irabazteko aukera gehiago dago". Ekainaren 26ra arte dago parte hartzeko aukera.



## Eibarko Teknimap enpresak Lurra Bizkaia Saria 2025 jaso du

Eibarko Teknimap enpresak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eta Deia egunkariak antolatutako Lurra Bizkaia Saria 2025 jaso du, Talantia enpresarekin batera bultzatutako Aris proiektuan parte hartzeagatik. Azaldu dutenez, "proiektu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru kutsatuen tratamenduari erantzun nahi dio. Ildo horretan, EAEko lurzoruaren % 1,3 kutsatuta egon daitekeela kalkulatzen da, neurri handi batean kea, burdina eta obra-hondakinengatik. Lur azpian ezkutatutako 13.000 futbol zelai baino gehiagoren pareko azalera litzateke hori. Euskal industria-ondarean, Eibarkoa kasu paradigmatikoa da. Aurreko mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan, ia etxe guztien azpian tailer bat zegoen eta, beraz, potentzialki kutsatutako lurra". Ekografia batean bezala, Arisek erabiltzen duen teknologiak kutsatuta egon daitekeen lurraren bereizmen handiko irudiak lortzea ahalbidetzen du. Gainera, kutsatzaileen kontzentrazioa aztertzen duten gas-detektagailuak ditu.






## Pagatxako emakumeak Marrakexen

Pagatxa emakumeen elkartekoak Marrakexera bidaia egin dute. Ekainaren 12tik 15era egon dira Marokoko hiri turistikoan, eta tokirik esanguratsuenak ezagutu dituzte: "Marrakex hiria, lorategiak, monumentuak, plazak eta azoka ikusteaz gain, Agafayra eta Ouarzatera ere joan ginen, 4x4an, eta basamortuan afaldu genuen. Atlas Filmeko Museora bisita ere egin genuen, une batez film bateko protagonistak bilakatuta".



## Eibarko Artisten Elkartekoen txangoa

Urtero bezala, kurtsoari agur esateko txangoa egin dute Eibarko Artisten Elkartekoek, eta oraingoan Santanderrera joan dira.



## Aldatzen elkarrekin ibilitako lagunek ederto pasatu zuten urteroko bazkarian

Argazkian azaltzen direnak, joan ez ziren beste hainbatekin batera, orain dela 51 urte irten ziren Aldatze ikastetxetik, behin ikasketak amaituta. Argazkia bidali digun Rakel Irustak dioenez, "urtero elkartzen gara, gure adiskidetasuna ospatzeko. Aurten egun biribila pasatu dugu Elgoibarren. Goizeko piskolabisa eta gero, Ibai Ondo jatetxean bapo bazkaldu eta, arratsaldeko tragoa hartuta, etxerako bidea hartu genuen".

## Western ezagunen musika joko du Bandak




Egun bereziak dauzkate aurretik Eibarko Musika Bandakoek, baina emanaldirik bereziena San Juan Txiki egunekoa izango da. *Once upon a time in Untzaga* kontzertua 22:00etan hasiko da eta, iaz 'Eraztunen gizona' pelikularekin egindakoari jarraituz, aurten western ezagunetako abestiak joko dituzte, pantailan pelikula ezberdinen irudiak proiektatzen dituzten bitartean. Horrela, *Los siete magnificos*, *Silverado*, *El bueno, el feo y el malo* eta *Por un puñado de dolares* bezalakoen soinu-banden abestiak joko dituzte.

BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI
Edificio Tekniker
Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR
tel.: 943 00 09 99
www.bicgipuzkoa.eus bic@bicgipuzkoa.eus


LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN HAUNDIKO HARIAK
BULOI ETA TORLOJUAK
HUSILO ETA AZKOINAK
RAFAEL LAPEYRA, S.L.
Ondo pasa jaixak!
Erisono Industrialdea, 3 – 20600 – EIBAR
Tfnoa. 943 121 308 - 943 121 312
www.rlapeyra.com


RPS 128/24
aldaz
hortz klinikak - clínicas dentales
943 36 63 77
LASARTE - TOLOSA- ELGOIBAR
TRATAMENDU GUZTIAK ZENTRO BEREAN.
LEHENENGO BISITA ETA RADIODIAGNOSIA DOAN.
ODONTOLOGIA ETIKOA.
Zure irribarrea egingo dugu



## Berbalagunek Lizagasar sagartokian agurtu dute ikasturtea

Eguraldia lagun, Elgoibar aldera joan ziren eguaztenean Berbetan programako hogei berbalagun, Lizagasar sagartokia bertatik bertara ezagutzera. Lehenik eta behin, sagastia ikusi eta Asier arduradunaren azalpenak adi jarraitu zituzten. Ondoren, paraje ederrean, mokadu gozoak dastatzeko aukera izan zuten: sagardoa, tostadak sagardo-purearekin, gazta eta menbrilloa, txorizoa, kafesnea madalenekin eta, ausartenek, pattarra. Honenbestez, eta ikasturte osoan lan mardula egin ostean, merezitako oporrak hartu dituzte mintzapraktika-programako kideek.



## Albina Stardust eta Divina Comedia, Harrotasunaren Eguna ospatzeko

Nazioarteko LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna ospatzeko, Albina Stardustek (Iruñea) & Divina Comedia (Arrasate) diziplina anitzeko artista-bikoteak ikuskizuna eskainiko du, Udalaren eskutik, Untzagan 22:00etan. Euskadi osoko eszenatokietan ibili dira bi artistak, musika, komedia eta aldarrikapen politikoak modu berezian nahasten dituen ikuskizunarekin. Antolatzaileek diotenez, "estilo berezia dute, eta horrek drag euskaldunaren erreferente bilakatu ditu".

## Txirrindulari Elkartearen Sanjuanetako zapiak salgai daude hainbat tokitan

Aurten ere Sanjuanetako zapiak jarri ditu salgai Eibarko Txirrindulari Elkarteak, Eibarko Udalaren laguntzarekin. Bi eurotan eros daitezke hainbat taberna eta establezimendutan: Koskor, Kultu, Kontent, Guridi, Casino, Gure Leku, Barrena estankoa, Diana, Portalea, Albert, Trinkete, Gure Kaiola, Agiñaspi, Orbela, Juanito, Zaizoi, Buenos Aires, Kalaka, Bossa, Depor, Unbe, Xania, Borda, Ongi Etorri, Txoko, Antxon, Vivaldi, Foxtter, Baco Leku, Tunelpe, Arkupe, Ametsa eta Batzoki.






## EKAINAK 20, BARIXAKUA

- ***17:00etan***, Astelena frontoian San Juan **pilota txapelketa**. Pilota eskolen partiduak: benjamin, alebin, infantil, jubenil eta seniorren eskuz binakako partidak. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- ***17:00etan,*** Ipurua kiroldegian, XXI. Eibarko Hiria **squash** sariaren kanporaketa fasea. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- ***21:30etik aurrera***, Untzaga plazan, **KOKEIN eta SÜNE** taldeen kontzertua.



## EKAINAK 21, ZAPATUA

- ***09:00etan,*** Ipurua kiroldegian, XXI. Eibarko Hiria squash sariaren oinarrizko koadroa. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- ***16:00etan***, XXI. Eibarko Hiria squash sariaren finalak. Antolatzailea: Eibarko Klub Deportiboa.
- ***19:00etan***, anbulatorioko plazatik abiatuta, kalejira **AFRICA BAJ YAY** taldearekin.
- ***19:30ean***, Ego Gain pasealekuko Zugasti eskultura inguruan, **EKOS** abesbatzaren kontzertu korala.
- ***23:00etatik aurrera,*** Untzaga plazan, **SEGURIDAD SOCIAL** taldearen kontzertua.
- ***23:00etatik 02:00etara***, Untzagan, **Testing** Programa, Ai laiket.
- ***23:00etatik 02:00era***, Untzaga plazan, alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko informazio eta prebentziorako karpa, **GARAIA**ren eskutik.
- ***00:45etik aurrera***, Untzaga plazan, **DJ saioa**.





# EKAINAK 23, ASTELEHENA

- ***10:30ean***, Ospitalean, Santuari **zapia** jarriko zaio, **KALEETAN KANTUZ** taldearen laguntzarekin.
- ***11:00etan,*** Untzagan hasita, Sanjuanetako **Zortzikoa**, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikarien laguntzaz.
- ***12:00etan***, Untzagan, **kuadrillak** bildu, eta **USTEKABE**rekin kalejira Urkizuraino.
- ***13:00etan***, Estaziño kalean, ongietorria **Lizarrako Dultzaineroei**, eta **KALEJIRA** Untzaga plazaraino, Udalbatza, aurten omendutako pertsona eta taldeak eta kuadrillak lagun dituztela.
- ***13:30ean***, Udaletxetik, **pregoia** eta jaiei hasiera emateko **txupinazoa**.
- ***13:45ean***, Udaletxean, Sanjuanetako kartel lehiaketaren eta alkohol gehiegikeriaren kontrako pegatina lehiaketaren **sari banaketa.**
- ***15:30ak arte***, kalejira **USTEKABE** fanfarrearekin.
- ***17:00etatik 20:00etara,*** Untzagan Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel haundiena, **LEKIM** Animazioak-en eskutik.
- ***17:30etik 20:30era,*** Eibarko Bizikleta plazan, umeentzako **puzgarriak**.











**Ondo pasa Sanjuanetan!**

T. Etxebarria, 8

BAR BUENOS AIRES

KALAKA

Untzaga, 5

Añana

Untzaga Plaza 943 043 782

NUVOLA

San Andres pasealekua, 2

tfnoa. 943 20 01 01

UNBE KAFETEGIA

668 59 61 75

Pintxoak / Tortilak
Plater-konbinatuak
Razioak eta
Otartekoak

MARTITZENETIK BARIXAKURA
11:00etatik 22:00etara
ZAPATUETAN
09:00etatik 21:00etara
DOMEKETAN
09:00etatik 13:00etara

ASTELEHENETAN itxita



AMETSA
Gin Bar

JAIETAN GOZATU
*AMETSA GIN BAR*
ERARA

GASTROTEKA BOSSA

Ego gain, z/g

Ongi etorriak zuen etxera!!

943 20 67 53



URKIZU, 22 943128086

Aguiñaspi

GOSARIAK

MENU BEREZIAK ENKARGUZ

Plater konbinatuak, Razioak,
Bokatak, Hanburgesak

# EKAINAK 23, ASTELEHENA

- ***19:00etan,*** Urkizutik, Lizarrako **erraldoi** eta **buruhandien** eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.
- ***19:00etan***, Untzaga plazan, "La última y nos vamos" **kale antzerkia,** Trapu Zaharra konpainiarekin.
- ***19:00etan***, Karmengo elizan, Bezperako **meza** eta Salbea, San Andres Parrokiako abesbatzarekin.
- ***19:30ean,*** Untzagatik abiatuta, kalejira **IRULITXA** fanfarrearekin.
- ***20:00etan***, Eibarko Bizikleta plazan, **txokolatada** umeentzat.
- ***22:00etan,*** Untzagan (harmailen aldetik) **Danborradaren irteera,** USTEKABEk lagunduta.
- ***23:15ean,*** Untzagan, **NELE DANTZA**-Eibarko Dantza Garaikidea taldearen emanaldia.
- ***23:30ean,*** Untzagan, **SAN JUAN SUA,** ..eta kitto! elkartearen eskutik, eta **QUEIMADA,** As Burgas Casa Cultural de Galiciak antolatua.
- ***00:00etan,*** Untzagan (Udaletxe plazan) San Juan Kantua eta jarraian **Danborradaren Alardea**, USTEKABEk lagunduta.
- ***00:15etik 04:00etara,*** Untzaga plazan, berbena **LISKER** taldearekin.










# Ondo pasa Sanjuanetan!






























## EKAINAK 24, MARTITZENA

- ***08:30ean,* kalejira** Lizarrako Dultzaineroekin.
- ***10:30ean***, Azitaingo ermitan, **meza** eta sorben bedeinkapena.
- ***11:30etik 14:30era***, Untzaga Plazan, “Juegos gigantes” jolas parkea, **KULTURMAGIC** taldearen eskutik.
- ***12:00etan,*** Karmengo elizan, San Juan eguneko **meza** Nagusia, San Andres Parrokiako abesbatzarekin.
- ***12:45ean,*** Toribio Etxebarrian, Eibarko Cielito Musika Bandaren **San Juan kontzertua**. Euria eginez gero, Errebal plazan.
- ***13:30etik 14:30era,*** Untzaga plazan, “El gran Braulio” **kale antzerki** familiarra, Adrian Conde antzerki taldearen eskutik.
- ***18:00etan,*** Errebal plazan, V. San Juan City secrets, **makro-ginkana** kuadrillentzat, ITZAMNAren eskutik. 2013. urtean baino lehenago jaiotakoentzat.
- ***18:00etan***, Zuloagatarren parkean, dantzaldia **DJ XAIBOR**-ekin.
- ***19:00etan,*** Urkizun abiatuta, **UMEEN DANBORRADA**, Ustekabe fanfarrearekin.
- ***19:30ean,*** Zuloagatarren parkean, **txokolatada** umeentzat.
- ***20:00etan,*** Eibarko Bizikleta Plazatik abiatuta, kalejira **LATUNA BANDO** fanfarrearekin.
- ***20:30ean,*** Untzagan, **umeen pregoia**, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.
- ***22:00etan,*** Erromerixa Untzaga plazan, **JAINAGA ETA NARBAIZAREN** eskutik.
- ***23:30ean,* Soka Dantza** Untzaga plazan, Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.
- ***00:00etan,* suzko erroberak** Global Foc SL Pirotecniaren eskutik.
- ***00:15etik 03:00etara***, Untzaga plazan, berbena Jamaica Show orkestrarekin.








# Ondo pasa Sanjuanetan!
























## EKAINAK 25, EGUAZTENA



- ***08:30ean*, kalejira** Lizarrako Dultzaineroekin eta goiz-erestia.
- ***11:30ean,*** San Juan XXX. **marmitako lehiaketa**, Untzaga plazan.
- ***11:30etik 14:30era,*** Untzaga plazan, haurrentzat **jolasak** LEKIM Animazioak konpainiaren eskutik.
- ***11:30etik 14:30era,*** Untzaga Plazan, **"Jolas mitologikoak"** jolas parkea, JOKAI taldearen eskutik.
- ***17:30etik 20:30era,*** Eibarko Bizikleta plazan, umeentzako **puzgarriak**.
- ***18:15ean,*** Urkizutik, Iruñako BUZTINTXURI **Erraldoi, Buruhandi** eta **Dultzaineroen** taldea eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira.
- ***19:00etan,*** Zuloagatarren parkean, "Artilusio" **kale antzerki** ikuskizuna, Markeliñe konpainiarekin.
- ***19:30ean,*** Untzagan, **Euskal Jaialdia**, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatua.
- ***20:00etan,*** Zuloagatarren parkean, **txokolatada** umeentzat.
- **21:30ean,** ONCE UPON A TIME IN UNTZAGAN kontzertua, Eibarko **CIELITO** Musika bandaren eskutik.
- ***23:00etan*, suzko erroberak,** Pirotecnia Vulcanoren eskutik.








# Ondo pasa Sanjuanetan!
























# SAN PEDRO JAIAK

## Karmen kaleko plazan

### EKAINAK 27, BARIXAKUA

- ***16:30:*** Umeentzako **txokolatada**, ENE!-k antolatuta.
- ***17:00:*** Umeentzako **jolasak** (artaburuak, arrautza-lasterketa, boli-lasterketa, zaku-lasterketa eta lapiko apurtzea edo itsulapikoa).
- ***19:00:*** **LEKIM** ANIMAZIOAK antzerki-taldearen emanaldia.



### EKAINAK 28, ZAPATUA

- ***12:00:*** **Toka eta Igel** txapelketa, ENE!-k antolatuta.
- ***18:00:*** **MARIACHI DOMINGUEZ** musika-taldearen emanaldia.
- ***19:00:*** **VICTOR AMILIBIA** bakarrizketaria.
- ***20:00:*** Beheko Tokiko **DANTZA TALDEA.**
- ***21:00:*** Harrera Beheko Tokiko dantza taldeari, Jubilatu-etxeko aretoan.
- ***21:00:*** **Piskolabisa** (pastak eta edaria).
- ***21:45:*** **Berbena**, ORQUESTA TUKANek eta Beheko Tokiko dantza taldeak girotuta.

### EKAINAK 29, DOMEKA

- ***12:00:*** **Meza** Karmengo parrokian.
- ***13:00:*** **Toka eta Igel** txapelketako sarien banaketa.
- ***13:30:*** Piskolabisa.

Antolatzailea; ENE! Eibarko Nagusien Elkartea





# Dantzak eta sua, aurten Musika Bandarekin

San Juan bezperaren une hunkigarrienetako bat San Juan sua piztearekin eta aurretik egiten diren dantzekin heltzen da, eta aurten beste elementu bat gehituko digu are hunkigarriagoa izateko. Izan ere, Eibarko Musika Bandak San Juan ereserkia eskainiko du Untzagako harmailetan bilduko den jendearentzat.

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen du San Juan sua pizteko ekitaldi nagusia eta atsegin handiz hartu du aurten Eibarko Musika Bandak bertan parte-hartzeko aukera, Eibarko Udal Dantza Akademiarekin aspalditik duen kolaborazioari gehituz.

Nerea Lodosak gidatzen duen dantza akademiak maitasun handiz prestatu ditu aurtengo dantzak ere eta eurekin 100 urte inguru egingo dugu atzera. "Joan den mendeko 1920. hamarkadako Eibarrera joango gara dantzekin eta I. Mundu Gerra osteko krisialdian kokatuko gara. Eibarren armak egiteari laga zitzaion eta krisi gogorra jasan genuen. Hori irudikatzeko, plastiko beltz batzuk jarriko ditugu eta giro iluna gailenduko da. Gero, suspertzea hasiko da 20. hamarkadako abestiekin, Koban taldeko musikarekin... Jone Laspiur Gorosabelek abestutako abestiak dira. Deituko diot, ea bertan azaltzeko aukera duen. Besteak beste, sasoi hartan emakumeek izan zuten garrantzia azpimarratu nahi dugu", Lodosak azaldu digunez.

Ereserkiaren eta dantzen ondoren, sua pizteko ordua iritsiko da eta, horretarako, aurtengo omenduek edukiko dute ardura: 25 urte bete dituen Kokein taldeak, 90 urte egin dituen Eibarko Txistulari Bandak, 40 urte bete dituen Udal Euskaltegiak, aurten laga gaituen Dioni Kortinaren senideek, 50 urte bete dituzten Aspacek eta Gure Bastarra elkarte gastronomikoak, eta 20 urte egin dituen Deparkel elkarteak.



Eibarko Udal Dantza Akademiakoen dantzak izango dira sua piztu aurretik.



# 30. Euskal Jaialdia 25ean

San Juan Txiki egunean jokatuko da dagoeneko hiru hamarkadatik gora daramatzan herri-kirol inguruko jaialdiaren edizio berri bat. Eibarko jaietan hain txertatuta dugun ekitaldiak, ohituta digunez, egitarau osotua eskainiko digu beste behin, arratsaldeko 19:30ean hasita, Untzaga plazan gozatzeko aukera paregabea gure eskura jarriz.

Ordubete pasatxo inguruko iraupena izango duen hilaren 25ekoak denetarik izango du. Horretarako osatu du hainbat modalitatetako kirolarien zerrenda, jende gaztea ere tartean ezarriz. Kalerik egin gabe urtero gure artean izaten den Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-k Hodei bere semearekin eta Goizeder Beltza eta Mikel Agirrerekin osatuko du aizkolarien laukotea; baina izango dira aizkolari gazteagoak ere, Aratz eta Enara kasurako. Txinga eta ingudearekin Ainhoa Larrinoak jardungo du lanean; harri-jasotze lanetan ibiliko dira Elene eta Udane Ostolaza; eta, azkenik, Iparraldeko jokoetan Karlos Aretxabaletak erakutsiko du bere maisutasuna. Erakusketak baditu bere osagaiak.


Zenbait modalitateen erakustaldia izango da, Sanjuanetako txapelketarekin batera.

Dena dela, lehiaketak edo erronkak izango du jaialdiaren pisurik handiena. Hor bi talde osatuko dituzte, modalitate guztietako ordezkariekin, eta euren arten jokatuko dute XXX. Euskal Jaialdiaren txapela zeinek eskuratu. Jakina, ez dira faltako lehiari bizitasuna emango dioten jokoak eta, aurretik egindako lanarekin nahikoa ez, eta hor izango dira azken uneko antxintxiketaldiak ere torneoa borobiltzeko.

...eta kitto! Euskara Elkarteak 1994. urtean antolatu zuen lehenengoz Sanjuanetako Euskal Jaialdia eta, ordutik, Eibarko Euskal Jokoak taldekoekin elkarlanean, urtero eutsi dio tradizioari (bi urteko etenaldia kenduta, pandemiaren eraginez ezin izan zelako egin 2020an eta 2021ean). Eguna ere noizbaiten aldatu behar izan badute ere, San Juan Txikin du urteroko hitzordua herri-kiroletako zaletuekin. Arratsalde polita eskainiko digute oraingoan ere.


Celestino Cortina Leitio

1. URTEURRENA
2024/06/17

"Beti izango zaitugu gogoan"

- ETXEKOAK -

BERE ALDEKO MEZA
ekainaren 22an,
domeka, 12:00etan,
San Pio X parroki elizan



FUNEUSKADI
FUNERARIA MUGICA




24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Kiskitza, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

# AUTOEN GEHIGARRIA
**2025eko EKAINA**

## Bidaiatzeko beste modu bat



Gero eta jende gehiagok aldatzen du hotela gurpil gainean bidaiatzeko askatasunagatik. Furgoneta kanperizatuak udako izar bihurtu dira ordutegirik gabeko abentura, naturarekiko harremana eta egunero beste leku batean esnatzeko aukera bilatzen dutenentzat.

Hamaika Telebistak 'Hamaikanper' saioa abiatu du. Helburua ez da kanperizazio perfektuena aurkitzea, baizik eta nork bere neurrira egokitutako ibilgailuak erakutsiz sormena, jasangarritasuna eta egunerokorako moldagarritasuna balioestea. Telebista kate horrek maiatzaren 27an abiatu zuen Hamaikanper saioa, eta bere webgunean ere ikus daiteke. Hamar atal izango ditu lehen denboraldiak.

Furgoneta, 4x4 auto, autokarabana eta bestelako ibilgailu kanperizatuen lehiaketa berezia izango da saio berria. Hamaikaren arabera, programak bidaia, abentura, natura eta sormena uztartzen dituen «kanper bizimodua» erakutsiko du, «entretenimenduaren bidez».

Parte-hartzaileek hainbat erronka gainditu beharko dituzte euren ibilgailuekin: tokiaren erabilera, energia kudeaketa, jasangarritasun neurriak eta eguraldira egokitzeko ahalmena, besteak beste.

Furgoneta bakoitza ez da lehiarako tresna hutsa izango. Hamaikak iragarri duenez, ibilgailu bakoitzaren atzean dauden istorioak eta bizipenak izango dira saioaren benetako protagonistak. Parte-hartzaileek beren bizi esperientzien berri emango dute kameren aurrean, eta mugitzeko askatasuna eta naturarekiko harremana nola bizi dituzten azalduko dute.



MAPFRE
Ubitxa

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)
943 82 04 49
688 871 717
mubera@mapfre.com

# Desberdintasuna markatzen duten xehetasun txikiak

Beroak estutu egiten du, bidaiak luzatu... eta gure autoa bigarren etxe bihurtzen da. Horregatik, osagarri erraz eta merke horiek erosoago, seguruago eta freskoago bihur dezakete udako edozein ibilbide.

• **Eguzkitakoak:**
Bolanteak erretzea eta autoa labe bihurtzea saihesten dute. Tolesgarriak, biribilgarriak eta diseinu dibertigarriekin ere badaude. Trikimailu bat: eguzkitan denbora luzez aparkatzen baduzu, erabili alboetako eguzkitakoak ere.

• **Antolatzaileak eta poltsikoak:**
Eserlekuen atzean edo maletategian autoa poltsikoekin ordenatuta eduki. Ezin hobea botilak, toallatxoak, eguzkitako betaurrekoak, kargagailuak edo snack-ak gordetzeko. Dena eskura eta lurrean zaratarik egin gabe.

• **Toallatxo hezeak eta gel hidroalkoholikoa**
Ez higieneagatik bakarrik: udan funtsezkoak dira piknik bidezko geldialdi baten ondoren, zerbait isurtzen bada edo bidearen erdian pixka bat freskatzeko.

• **Eserlekuentzako zorroak**
Tapizeria izerditik, eguzki-krematik eta hondartzako hareatik babestuko dute. Batzuk transpiragarriak dira, baita hozgarriak ere.



• **Bluetooth egokigailuak edo FM igorgailuak**
Zure autoa zaharra bada, gailu horiek aukera ematen dute mugikorra irratira konektatzeko eta musika, podcast edo mapez gozatzeko, kablerik eta konplikaziorik gabe.

• **Hozkailu eramangarri txikiak**
Beti ur freskoa, fruta edo mokaduren bat izateko. Badira autoari konektatzen zaizkion elektrikoak, edo, besterik gabe, hotz-metagailuekin konektatzen direnak.









# Bidaia luze bat egin aurretik...

Zer berrikusi behar da bidaia luze bat egin aurretik?



**Likidoen mailak**
- Motorraren olioa
- Balazta-likidoa
- Hozgarria
- Haizetako-garbigailuko likidoa

**Pneumatikoak**
- Presio egokia (ordezko gurpila barne)
- Marrazkiaren sakonera (legezko gutxienekoa: 1,6 mm)
- Higadura irregularra (lerrokatze-arazoak adieraz ditzake)

**Balaztak**
- Pilulen eta diskoen egoera
- Pedalaren erantzuna

**Bateria**
- Karga eta egoera orokorra egiaztatzea

**Argiak eta seinaleztapena**
- Argiak, keinukariak, balazta- eta larrialdi-argiak

**Aire girotua eta klimatizazioa**
- Bereziki haurrekin, maskotekin edo leku beroetara bidaiatzen baduzu

**Haizetako-garbigailuaren eskuilak**
- Egoera ona eta eraginkortasuna

**Iragazkiak** (**airea, olioa, bidaiari-lekua...**)
- Zikinak badaude edo kilometrajeagatik badagokio, aldatu.

**Suspentsioa eta norabidea**
- Eroso eta seguru gidatzeko

**Dokumentazioa eta nahitaezko kit-a**
- IAT behar bezala, indarrean dagoen asegurua, txaleko islatzailea, triangeluak edo larrialdietako argiak, etab.



# Bizikletak ere gurekin datoz, baina nola?

Oporretan bizikletan ibiltzea gero eta ohikoagoa da. Baina... nola garraiatu daitezke? Bizikletak autoan eramateko hiru sistema nagusi daude:
- **Sabaiko bizikleta-eramatekoa:** Ekonomikoak eta muntatzeko errazak. Bizikleta igotzeko ahalegina eskatzen du. Erregai-kontsumoak gora egiten du. Kontuz ibili behar da altuera mugatuko sarbideekin (garajeak, bidesariak...).
- **Atzeko atetzarreko bizikleta-eramatekoa:** Asko erabiltzen dira prezioagatik. Matrikula eta argiak ezkutatzen dituzte (plaka osagarri bat erantsi behar zaio). Egonkortasun txikiagoa eta harramazka egiteko arrisku handiagoa karrozerian.
- **Atoi-bolako bizikleta-eramatekoa:** Oso egonkorrak eta seguruak. Maletategia irekitzeko aukera ematen dute (kulunkariek). Garestiagoak, bola homologatua behar dute. Argiak eta matrikularako euskarria izaten dituzte.



**Zer dio araudiak?**
- Bizikletak ezin dira ibilgailuaren albotik irten.
- V-20 plakarekin seinaleztatu behar duzu, atzetik irteten badira.
- Matrikulak eta atzeko argiek ikusgai egon behar dute edo erreplika eraman behar dute.
- Ezin da bizikletarik eraman autoaren barruan, ikuspena eragozten badute edo arriskua sortzen badute.
- Ez betetzeagatik jarritako isunak: 200 eurora artekoak izan daitezke.









# Guztiok izango dugu tokia txosnetan

BIDEOA

Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak apustu eta ahalegin handia egin du San Juan jai hauetarako. Batetik, gaurtik martitzenera arteko egitaraua prestatu duelako; eta bestetik, egitarau hori anitza delako bere edukian, adin eta gustu ezberdinetako eibartarrontzat ekintzak batuz. Horrela, eta Txaltxa Zelaiko txosnen gunea txiki geratuko zaiela jakitun badira ere, "kontzertuetako taldeek jende asko ekarriko dutelako", guztiok izango dugu tokia bertan aurtengo jaietan.

Azkenengo urteotan hausnarketa-prozesu parte-hartzailea garatu du Jaixak-ek, barrura eta kanpora begira egin beharrekoak detektatu eta ilusioz etorkizunera begiratzeko.



Lan hori eginda, hortik ateratako ondorioekin dihardute lanean harrezkero eta aurtengo Sanjuanak dira horren erakusgarri. "Adibidez, ez genuen egitaraua gauera bakarrik mugatu nahi, egunean zehar ekintzak antolatu nahi genituen", esan digute jai batzordetik, eta horren adibide da hilaren 24an ospatuko den Umeen Eguna. "Normalean, 24an, arratsaldeko elektrotxarangatik aurrera sortu izan dugu egitaraua, 23ko Gazte Eguna oso potentea izaten delako, baina aurten eguneko egitaraua indartu nahi izan dugu", dioskue Jaixak-ekoek.

Horrela sortu zen Umeen Eguna antolatzeko ideia, eta egindako hausnarketan herriko beste eragile eta norbanakoekin elkarlana bilatzeko asmoa ere irten zenez, Jaixak-en inguruan ibili izan den guraso talde bati egin zioten egun horretako egitaraua prestatzen laguntzeko proposamena. "Oso ondo hartu zuten eta eurak ibili dira goizetik arratsaldera arte egingo diren ekintzak antola-

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
65 Kolegiatu zbkia.
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

COSTAMAR ARTEKARITZA
AUTOAK | ISTRIPUAK | KARNET KENTZEA
ETXEA | DENDA | ASISTENTZIA BIDAIAN
EHIZA | ENPRESA | E.P.S.V. PENTSIOAK
BIZITZA | AUTONOMOA | INBERTSIOAK
OSASUNA | AURREZPENA | BABES JURIDIKOA
HILETAK | ERANTZ. ZIBILA | KREDITUA ETA BERMEA
Urkizu Pasealekua, 11 943-120437 DFGV zkia: MS-224
www.correduriacostamar.com costamar@correduriacostamar.com




# Lau eguneko egitaraua prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandakok San Juan jaietarako, ekintza anitzekin

tzen”, esan digutenez. Gainera, egun horretako bazkaria Basa elkarteak eta Gazte Safak prestatuko dute, herriko eragileekin duten harremana berrituz eta indartuz. “Gazte Safak parte hartu izan du aurreko urteetako egitarauetan ere, eta Basa elkartea (iazko urte amaieran sortu dena) ere batu egin da”, azaldu digute.

Domekako eskaintza ere ildo horretatik doa. Txosnak gaur zabalduko dituzte eta, ekintza berezirik antolatu ez badute ere, gaur mugimendua egongo da, eta biharko egitaraua oso indartsu dator. Beraz, astelehenean eta martitzenean datorrena ikusita, domeka atsedenerako eguna bezala planteatu dute. Hori bai, atseden aktiboa, eta baita erakargarria eta dibertigarria ere. Batetik, maila handiko bertsolariekin saioa egongo delako; eta bestetik, Wazemank saioko bideoen maratoia eskainiko dutelako, barre artean biharamuna pasatzeko.

Eta juerga nahi dutenak lasai egon daitezke. Esan bezala, biharko Etxera Egunak egitarau potentea izango duelako bazkariarekin, Patxangoi elektrotxarangarekin eta gaueko kontzertuekin (The Lio eta Judash, besteak beste). San Juan bezperan, bestalde, ohiko planteamenduari eutsi diote. “Orain arte oso ondo fun-



Gestoria Alonso
San Agustin, 5 - BEHEA
618 25 93 44
943 20 20 17
mcalonsoeibar@gestores.net

GAUR ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA ETXE-ERREFORMA ELEKTRIKO INTEGRALAK. ILUMINAZIOA
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40
nagore@egaur.com

tzionatu du 23rako prestatu izan dugun eskaintzak eta antzera jarraituko dugu aurten ere", dioskue Jaixak-etik. Beraz, 23ko eguerditik 24ko goizeko ordu txikietarainoko egitaraua egongo da, tartean Sukena eta Skabidean taldeen kontzertuekin. Eta 24an ere, umeentzako ekintzez gain, arratsaldean Hamarru taldearekin elektrotxaranga eta gauean kontzertuak egongo dira (Begibide erromeria, Jon Koldo Gudariak eta Lumatzak MJ), txosnetako Sanjuanetako egitarauari amaiera emanez.



Judash talde eibartarra izango da biharko kontzertuetako protagonistetako bat.

**Brigada Morea**

Gaur, txosnak zabaldu aurretik, Brigada Morearen bilera irekia egingo da eta agerraldia egingo dute Txiriokalen (23an ere beste bilera bat egingo da). "Aurreko urteetan egin bezala, Brigada Morearen barruan bi roletan banatuko dugu jendea. Batetik, arduradunak egongo dira, dendena kudeatzeko eta eman beharreko pausoak zehazteko; eta bestetik, sarea egongo da, besoko morearekin identifikatuko direnak", azaldu digute Jaixak-ekoek. "Edozein erasoren aurrean (espero dugu ez gertatzea), erreferentziazko lagunak izango dira eta eurengana jo daiteke erasoa jasan edo ikusiz gero. Gainera, aurten txosna guztiak puntu moreak izango dira. Hau da, erasoren bat jasan edo ikusiz gero, jende guztiaren artean arduradunak bilatzen ibili beharrean, txosnetara jo ahal izango da eta bertako arduradunek bideratuko dute egoera. Jai seguruak nahi ditugu eta hori guztion ardura da". Horrela lortuko dugu Sanjuanetan benetan gozatzea.



# 350 eibartar sanjuanetan kalean danborrari eragiteko prest

**Sanjuanetako bi danborradetan parte hartuko dutenek aste honetan amaitu dituzte apirilean hasi ziren asteroko entseguak, eta ikasitakoa kalean erakusteko irrikitan daude orain. Urtero bezala, helduak izango dira lehenak, San Juan egunaren bezperako gauean. Eta haurrek hurrengo egunera arte egon beharko dute zain.**

San Juan bezperako danborrada oso berandu amaitzen zela eta, irteera ordua aurreratzea erabaki zuten iaz, probatzeko eta, jendeak aldaketaren aurrean nola erantzungo zuen batzuek zituzten beldur eta zalantzak guztiz baztertuta, iazko ordutegiari jarraituko zaio berriz ere. Horrela, Nagusien Danborrada 22:00etan hasiko da, Untzagan (harmailen aldeko plazan), *Marruko* kanoiaren salbaren ostean pare bat pieza bertan jo eta gero. Ibilbidea betikoa izango da eta, urteroko martxan, Calbetonetik Urkizura bitartean hainbat aldiz geratzen joango dira. Orain arte Eibarko Musika Bandak laguntzen zien ibilbide osoan zehar, baina aurten ez da hala izango, umeak bezala, aurten lehen aldiz helduak ere Ustekabe txarangaren laguntza izango dute eta. Bestela, iaz bezala Danborrada udaletxe pareko plazara gauerdian sartzea dago aurreikusita, Alardea bertan eskaintzeko. Guztira 250 bat lagunek hartuko dute parte, betiko konpainia edo taldeetan banatuta (Gastadoreak, Tradizionalak, Betikuak, Eskoziarrak, San Andres eta Amuategi).

Umeen danborrada, berriz, Urkizun hasiko da hurrengo egunean,

Laukolan
SOLUCIONES INFORMATICAS
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10

astixa
Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231



**Helduen danborradan 250 bat lagunek hartuko dute parte, urteroko konpainia ezberdinetan banatuta. Umeen danborradan, baina, jaitsiera nabarmena egon da iaztik hona: 175 umek parte hartzetik aurten ehun izatera pasatu dira eta.** SILBIA HERNANDEZ.

19:00etan. Parte hartzera animatzen diren umeak urtetik urtera gutxiago direla ikusita, antolatzaileak arduratuta dabiltza azken urteotan, eta ikastetxe zein gurasoei dei egin nahi diete, ea horrela datorren urtean ume gehiago animatzen den. Aurten Eibarko bost ikastetxetako ehun ume arituko dira danborrarekin jo eta su.

Eta, jakina, danborrada bietan karroza aterako dute. Aurten Gureak lantegikoak gonbidatu dituzte bertara igotzera, lantegiaren 50. urteurrena ospatzeko. Eibarko Udal Dibujo Eskolakoek apaindu dute karroza, eta aurtengo Danborradarako pin-a ere Leire Kareaga bertako irakasleak diseinatu du, beti ere Danborradaren aurtengo omenduak zeintzuk diren kontuan hartuta.






# Antzerkiaren magiaz kalean gozatuz

Antzerkia kalera ateratzen da San Juan jaietan, kaleko giroaz busti eta bere magia herritar guztiei eskaintzeko. Aurtengoan hiru saio izango ditugu: hilaren 23an, 19:00etan, Untzagan, 'La última y nos vamos' Trapu Zaharra konpainiaren eskutik; 24an, 13:30etik 14:30era, Untzagan, 'El Gran Braulio' Andres Conde antzerki taldearekin; eta 25ean, 19:00etan, Zuloagatarren kaleko parkean, 'Artilusio' Markeliñe konpainiak eskainita.

## 'La última y nos vamos'

'Iaz bezala, Trapu Zaharra konpainiak emango die hasiera Sanjuanetako kale-antzerkiei eta saio berezia eskainiko dute, euren azkena izango delako. Izan ere, antzezlan honekin Trapu Zaharra konpainia historikoak agur esango dio oholtzari haien betiko tonu umoretsuan.

Ikuskizunean kale antzerkiko aktore batek ordu txikietan Areto Antzokian zortea probatzea erabakiko du. Bere helburua lortzeko, antzerki klasikoko aktore batekin elkartuko da, eta obra berri bat muntatuko du: "Bost ordu Mariorik gabe". Dirua biltzeko, bere aurreko konpainiarekin lan egin zuen plazak zeharkatuko ditu.

Beraz, ez galdu Santi Ugalde aktore eta sortzaile ezagunak gidatzen duen konpainiari agur esateko aukera.

## 'El Gran Braulio'

Adrian Conde konpainia etorri izan da aurretik Sanjuanetara eta beti da aipatzekoa bere lanaren originaltasuna. Aurten 'El Gran Braulio' ikuskizun sarituarekin datoz, magia kutsuarekin.

Braulio munduko magorik onena da, edo hori uste du berak behintzat. Egia esan, nahiko mago traketsa eta despistatua da, eta ez da konturatzen trukoak nahi barik irteten zaizkiola. Hori bai, oso dibertigarria da, batez ere magia nola egiten duen ikustea. Orain gurera iritsiko da mago eszentriko hau bere "magia" eskaintzera. Betiko zortea izango du oraingoan ere?



Markeliñek 'Artilusio' ikuskizuna ekarriko du Sanjuanetara.

## 'Artilusio'

Markeliñek ere magiaz beteriko ikuskizuna ekarriko digu, baina beste modu batean. 'Artilusio'-n liburu, objektu eta material sinpleekin jolasten dute, paperarekin edo kartoiarekin, adibidez, beste esanahi batzuk emateko eta irudimenez betetako egoera harrigarriak sortzeko. Gainera, ikusleen parte-hartzea sustatzen dute, umeena batez ere. "Eszena-esperientzia bat proposatuko diegu, eta jakin badakigu oso hunkigarria izango zaiela", euren berbetan.


Eibarko
EAJ-PNV-k
San Juan jai
ZORIONTSUAK
opa dizkizue!
eaj
pnv

Neinor HOMES
ARRATE HOMES · EIBAR
Ez utzi aukera hau pasatzen, bisitatu orain gure
PISU PILOTUA
2 logelako azken etxebizitzak | 3 logelako etxebizitzak eskuragarri
Obra berriko etxebizitzak:
Gimnasioa · Gourmet aretoa · Garajea · Trastelekua
900 11 00 22 · neinorhomes.com

# “Beti gaude elkarrengandik hurbil, horrek egin gaitu familia eta lagun”

**KOKEIN** • San Juan jaietako omenduak

>>>

Elkarrizketa osoa BIDEOAN

San Juan jaiak biziki ospatuko dituzte Kokein talde eibartarraren kideek. Gaur, 21:30ean, kontzertua eskainiko dute Untzagan; eta 23an, dultzaineroekin kalejira egin ondoren, txupinazoa botako dute, iluntzean San Juan sua piztu aurretik. Izan ere, taldeak 25 urte bete ditu eta merezitako omenaldia jasoko du.

Legarreko musika lokala bigarren etxea da Zaloa Urain, Haritz Lete, Jatsu Argarate, Iker Saenz de Zaitegi eta Edu Arginzoniz Kokein taldeko kideentzat, eta bertan elkartu gara eurekin, gaurko kontzertuaren aurretik egindako azken entseguan. Egia esan, azken aldian hainbat kontzertu eskaini dituzte eta jotzeko prest daude, baina gaurkoa ikuskizun berezia izango da.

**Demaseko Sanjuanak dituzue aurretik. Jaietarako prest?**
ZALOA: Nahiko urduri gaude, baina zentzu onean. Eskertuak sentitzen gara. Konturatzen gara gure meritua izan dela eta oso pozik gaude 25 urtez elkar egoteaz. Eibarren horrelako ospakizun bat egitea eta Untzagan Sanjuanetan jotzea gustura hartzen da. Barrenean nolabaiteko mugimendua eragiten digu.
HARITZ: Erosoago sentituko gara kontzertuan omenaldian baino (barreak).

**Eroso sentitzen zareten tokian hasiko dituzue jaiak, eszenatoki gainean, baina Eibarko Sanjuanetan izanda, kontzertu berezia izango da?**
HARITZ: Gure abestiekin etorriko gara, baina apustua egin dugu ikuskizunaren aldetik plus bat emateko. Adibidez, beste argi batzuk eta bestelako gauzatxoak jarriz. Egun berezia izanda, ikuskizun bereziagoa izatea nahi dugu, ez dugu egun arrunta izatea nahi.
**Zuentzat ez da Sanjuanetan jotzen duzuen lehen aldia, txosnetan ere aritu zaretelako, baina gaurkoa beste kontu bat izango da?**
ZALOA: Baietz uste dut. Egia da guk berdin joko dugula toki guztietan, Untzagan zein txosnetan, baina giroa eta ikustera joango den jendea ezberdinak izan daitezke. Gure jarrera berdina izango da. Hau dakigu egiten, hau maite dugu eta hau erakusten dugu. Tokiak badu zerikusia, baina gehiago jendearen aldetik guretik baino, espero.







EIDER ITURRIAGA

**Gero etorriko dira San Juan bezperako omenaldiak. Hor bai egongo zarete konfort-zonatik kanpo?**
JATSU: Arrisku handia dugu! Agian ...eta kitto!-koek ez duzue ondo pentsatu sua pizteko ardura guri ematerakoan (barreak).
ZALOA: Ez dira guretzat toki erosoenak, ez dira hain seguru sentitzen garen espazioak, baina Udalaren, ...eta kitto!-ren eta jendearen aldetik omenaldi hauek jasotzea polita da.

**25 urteko ibilbidea egin du Kokeinek. "Bizitza osoa", Sanjuanetako liburuan diozuen moduan...**
JATSU: Osoa ez dakit, baina erdia baino gehiago bai.
**Ez dakit atzera begira jartzen zareten, baina eginez gero, zer sentitzen duzue?**
HARITZ: Ez gara larregi jartzen atzera begira. Beti gogoratzen ditugu pasatako istorioak, baina aldi berean aurrera begiratzen dugu. Azken diskoan abesti berriak sartu ditugu, nahiz eta zenbait laguni gure








EIDER ITURRIAGA

abesti zaharren bertsioak eskatu, eta beti gaude gauza berriak sortzen eta aurrerapausoak ematen. Lokal honetan daramagu hasieratik, badira urteak, eta agian pareta hauek guk baino gehiago kontatu dezakete.
ZALOA: Ez gara oso nostalgia zaleak. Horrek ez du esan nahi ez dugunik gogoratzen elkarrekin pasa ditugun gauza guztiak. Batzuk oso goxoak izan dira eta beste batzuk beharbada gogorragoak, baina horrek egin gaitu gaur egun garen pertsonak eta taldea. Ez dugu uste aurreko garaiak oraingoak baino hobeak izan direnik.
**Liburuxkan "familia bihurtu ginen aspaldi" diozue ere. Nolako familia da Kokein?**
ZALOA: Gertukoa. Gertukoak sentitzen ditut, elkar zaintzen dugu urte askoan. Horrek ez du esan nahi batzuetan gure artean desberdintasunak egon ez direnik, egon behar dira-eta.
IKER: Egunerokotasunari eutsi diogu, bata bestearen alboan. Intentsitate gehiagorekin edo gutxiagorekin, beti gaude bata bestearengandik hurbil, eta hurbil egote horrek familia eta lagun egiten gaitu.
ZALOA: Jendea gertu sentitzen duzunean etxean egongo bazina bezala sentitzen zara, goxo, eta edozer gauza gertatzen dela ere, gertatzen den horrekin babesa sentitzen duzu. Sentsazio hori dut eta niretzat hori da familia izatearen zentzua.
**Esan bezala, azkeneko diskoan lagunek ere hartu dute parte. Urte hauetan sortu duzuen lagunartea ere garrantzitsua da?**
HARITZ: Familia hemen hasten da, baina zabaldu egiten da. Jendearekin kointziditzen duzu interes berdinak dituzulako eta gauza asko partekatzen dituzulako, etam hortik hasita, gau asko pasa ditugu elkarrekin, momentu asko, eta familia handitzen doa. Lehengusuak direla esan dezakegu (barreak).

Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTAIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6 Tel/Fax 943 20 88 57
comercialzabala@outlook.com

Bidebarrieta, 8
Twins
tel. 943 05 60 82 • www.twinseibar.com


Gora San Juan Herrikoiak!
ONDO PASA jaixetan!
ehbildu


Kultu
Zuloagatarren, 3 943 20 84 39
ARRATE KULTUR ELKARTEA
31. urteurrena
SAN JUAN ZORIONTSUAK!!
HORRETARAKO GAUDE-ETA!!
Pintxoen
alardearen
erreinua!

# Musikaz beteko ditugu San Juan jai guztiak

Gaur bertan emango zaie hasiera San Juan jaietan egongo diren musika emanaldiei. Jaiak ezin dira ulertu musika barik eta egunero izango dugu estilo askotako doinuak entzuteko aukera. Txosnaguneko emanaldien berri 28. eta 29. orrialdeetan dugu, eta hemen duzue gainontzeko ikuskizunen zerrenda.

Gorenean hasiko ditugu Sanjuanetako ospakizunak gaur bertan. Izan ere, punta-puntako musikariak edukiko ditugu Untzagan, 21:30etik aurrera. Batetik, herriko kuttunak: Kokein. 25 urteko ibilbidea ospatzeko, euren herrian dena emateko prest. Eta eibartarren ondoren, Süne. 'Huntza' taldean aldapan gora bidea egin duen Josune Arakistainen proiektua gurera etorriko da, Lasturretik zuzenean, trikiti doinuak techno gogorrenarekin uztartuz.

Bihar, 19:00etan, Sanjuanetan gure kaleetan ohikoak diren Afrika Baj Yay taldeko lagunekin kalejira egingo dugu, gauerako prestatzen joateko. Izan ere, 23:00etan, Seguridad Social talde mitikoa izango dugu Untzagan, batek baino gehiagok bidean galdutako tximak astindu ahal izateko. Ondoren, DJ saioa egongo da 00:45ean.

San Juan jaiak eztanda egin aurretik, domekan, 20:00etan, Shirley Davies soularen erreginak kontzertua emango du Untzagan.

**San Juan bezperan**

Hilaren 23an, txupinazoaren aurretik, Usartza Txistulari Bandak Sanjuanetako Zortzikoa eskainiko du 11:00etan, eta kuadrillak biltzen direnean, 12:00etan, Ustekabek Sanjuanetako bere agendari emango dio hasiera. Izan ere, horrez gain, 15:30ean kalejira eskainiko du, eta Nagusien eta Txikien Danborradetan ere lagunduko du.

Txupinazoaren ondoren, 19:00etan, plan lasaiago bat eskainiko dute Karmengo elizan, San Andres Parrokiako abesbatzak salbea abestuko baitu. Gorputza astindu nahi dutenek, ostera, Irulitxa fanfarrearekin izango dute zita, 19:30ean hasiko baitute kalejira Untzagatik. Gauean, 23:30ean, San Juan ereserkia eskaini eta sua piztu aurretik, Eibarko Musika Bandak kalejira hasiko du, 22:30ean, Estaziño kaletik. Eta, nola ez, gauari erritmoa jartzeko, Liskerrek ohiko emanaldia eskainiko du 00:15etik 04:00etara.







Eibarko Musika Bandak mota guztietako saioak eskainiko ditu Sanjuanetan.



Kokeinen ondoren Süne izango dugu gaur, Untzagan.

**San Juan egunean**

Asteleheneko biharamuna kendu ondoren, eta 12:00etan kalejira egin eta gero, 12:45ean Eibarko Musika Bandak San Juan Kontzertua eskainiko du Toribio Etxebarria kalean (euria eginez gero, Errebalen),

Arratsaldea DJ Xaibor-en dantzaldiarekin hasiko dugu 18:00etan, Zuloagatarren kalean. Eta 20:00etan, Latuna Bando fanfarreak kalejira eskainiko du Eibarko Bizikleta Plazatik abiatuta.

Gauean bi saio izango ditugu. Batetik, 22:00etan, erromeria egongo da Untzagan Jainaga eta Narbaizaren eskutik; eta bestetik, 00:15etik 03:00etara, Jamaica Show taldeak berbena eskainiko du.

**Zine doinuak 25ean**

Hilaren 25ean musika saio bakarra izango dugu, baina ez da nolanahikoa izango. 22:00etan Eibarko Musika Bandak 'Once upon a time in Untzaga' saioa eskainiko du, western estilo pelikulen irudiak ikusten ditugun bitartean, euren soinu-bandak joz.

**Tabernetako saioak**

Musika kalean gozatzeaz gain, tabernetan ere edukiko dugu aukera. Horrela, ZaiZoi tabernan egitarau betea prestatu dute egun hauetarako. Gaur Mise En Abyme eta Obego egongo dira, zapatuan Swamp eta Take, eta astelehenean Kvalvika eta Lukiek. Kontzertuak 19:00etan hasiko dira eta doakoak izango dira (alderantzizko sarrera ezarriko dute, hau da, bakoitzaren borondatearen arabera).

Beleko tabernan ere hiru saio eskainiko dituzte, doan horiek ere. Gaur techno gaua egongo da Javier Ganuza eta Pirataren eskutik, astelehenean Jon Malax eta All Night Long egongo dira musika jartzen, eta 24an Unai Santos.

Demaseko erritmoa edukiko dugu Sanjuanetan.





# Urteurren bereziak izan dira aurtengo omenduentzat

Eibartarrontzat ez da nolanahiko kontua Dultzaineroekin batera Estaziñotik Untzagara arteko bidea egin eta txupinazoa botatzea. Gutxik dute hori egiteko ohorea eta, moduren batean esatearren, hori irabazi egin behar da. Esan daiteke aurtengo omenduek ondo irabazi dutela ohore hori, urte askoan erakutsi dutelako horretarako prest daudela. Goza dezatela eta, eurekin batera, beste guztiok ere goza dezagula!



Urteurren borobilak bete dituzte aurtengo omenduek, eta horregatik eta urte hauetan egindakoagatik jasoko dute omenaldia jaietan. Deparkel elkarteak, adibidez, 20 urte bete ditu Debabarrenean Parkinson gaixotasuna dutenen eta hauen familiakoen kalitatea hobetzen. 2003. urtean, Marcial del Amo eta Jesus Astigarragaren elkarrizketa batzuen eta Parkinson gaixotasuna dutenen gertuko asistentziaren beharraren ondoren jaio zen elkartea sortzeko ideia. Proiektua garatzen joan ziren eta bi urte geroago, 2005ean, Deparkel jaio zen. Irabazi-asmorik gabeko elkartea da eta arreta integrala ematen dute, alderdi desberdinak landuz.

Kokein musika taldeak, bere aldetik, urte gehiago daramatza martxan, 25 hain zuzen ere. Hemen ez gara luzatuko gehiegi eurekin, 34. eta 35. orrialdee-







Aspacekoak 50. urteurrena ospatzen.

Gure Bastarra elkartearen logoa.


Deparkelen egoitza Ardantza kalean.

tan eurekin izandako elkarrizketa duzuelako irakurgai, baina Euskal Herriko musikaren ikur bihurtu direla esan dezakegu.

Gure Bastarra elkarte gastronomikoak 50 urte bete ditu aurten. Urte hasieran ...eta kitto!-k kaleratu zuen gidan azaldu bezala, berezia izan zen euren sorrera: "Danok Bat izena ipintzeko asmoa bazuten ere, gobernadore zibilak ez zien laga. Kuadrilla historikoenak ziren artean, guztiak komunistak eta sozialistak, Furia Rojakoak bezala ezagutuak. Gerra ondoren, kartzelatik edo "Langileen Batailoietik" pasa-

# Kokein, Aspace, Gure Bastarra eta Deparkel izango dira aurtengo Sanjuanetako omenduak

tutakoen ondorengoak. Geroago sartu ziren Adiskideak elkartekoak, euren soziedadea erre egin zenean".

Aspace elkarteak ere 50. urteurrena ospatu du aurten, Eibarko Aspace elkartearen lehen zentroa 1973an inauguratu zen arren. Eratu zenetik, Aspace lanean aritu da garun-paralisia duten umeen eskolaratzea sustatzen, eta heziketa bereziko aukerak eskaini ditu laguntza handiagoa behar dutenentzat. 50 urte hauetan zehar, ehundaka ikasle pasatu dira Eibarko eskolatik. Gaur egun, zentroak heziketa bereziko bi gela ditu, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin hitzartutakoak. Egun, Aspacek erreferente izaten jarraitzen du garun-paralisia eta antzerako alterazioak dituzten umeen heziketan eta arretan.








Arrate Kultur Elkarteak antolatuta, aurten ere ikus-entzunezkoekin gozatzeko aukera izango dugu uztailean, hiru egunetan ( 1ean, 2an eta 3an), San Andres parrokiako klaustroan eskainiko dituzten emanaldietan. Lehen bi egunetan 22:00etan hasiko dira, eta hirugarren egunean pixka bat lehenago, 19:30ean. Beti bezala, ez da sarrerarik ordainduko.

# Udako gauak freskatzen dituzten ikus-entzunezkoak

Txema Artetxe Aranguren eibartarrak zabalduko du aurtengo programa, *Huellas de una época* eta *Arte urbano* izenburuko bi proiekturekin. Lehenak bi urteko lana biltzen du, 2023ko udatik hona 80 gaztelu ingururi egindako argazkien laburpena; eta bigarrena 2024ko udaberrian hasi zuen: "Errioxako gaztelu bat bisitatzen ari nintzela eta maite nuen horma-irudi bat ikusi nuenean. Bere koloreak, marrazkien haunditasunak... inpaktatu egin ninduten. Lan horren irudi batzuk erakutsiko ditut". 12-13 minutu irauten du bakoitzak.

Hurrengo egunean *Isiltasunetik* dokumentala (42 min.) emango dute eta, ondoren, solasaldia hasiko da, egile eta protagonistekin. Jaiotzetik gorrak diren bi lagunek furgonetaz Marokon egindako bidaia kontatzen du lan honek. 2022an abiatu zuten proiektua: "Baliabide gutxi, baina ilusioa eta lana erruz egin ondoren, hiru urte hauetan lortu dugu dokumentala ia amaitzea". Lan honek, gainera, badu konplexutasun extra bat, filmatutako ordu asko zeinu hizkuntzan direlako. Jatorrizko ideia Josu Iztueta Azkuerena da, eta Telmo Basterretxeak zuzendu du.

Eta, ikus-entzunezkoen astea agurtzeko, *Kaixo, kari (itxiera bat, abiapuntu bat)* aurkeztuko dute Danele Sarriugartek (testuak) eta Miren Narbaizak (musika): "Agur eta ciao, edo ireki eta itxi. Emanaldi honetako hiru testuak aldi berean dira bi gauzak, aldi berean zerbaiten itxiera eta abiapuntu". Emanaldiak ia ordubeteko iraupena izango du.









**App-aren erabilera oso erraza dela diote Hapiick-ekoek.** EKHI BELAR

# ‘Te dejo’ doako zerbitzua martxan jarriko dute gaur primizian Eibarren

Egoitza Ermuko Izarra Centren baina arima eibartarra duen Hapiick enpresak jarriko du martxan zerbitzua gaurtik aurrera, eibartarrontzat esklusiban. Horren bitartez, herriko hiru puntutan dauden armairuetan objektuak laga ahal izango dira, norberarentzat edo beste norbaitek jasotzeko.

Inoiz gertatu zaizu lagun bati liburu bat itzuli behar eta elkartzeko aukerarik ez izatea? Edo gainean hainbat poltsa dituzula, baina oraindik etxera joateko gogorik ez eta poltsekin zer egin ez dakizula? Hapiick-ek horretan pentsatu eta ‘Te dejo‘ zerbitzua sortu du egoera horiei irtenbidea emateko. ‘Te dejo’ bi modutara erabili ahal izango da: batetik, objektuak kutxatilan laga daitezke gero beste pertsona batek jasotzeko; eta bestetik, norberak laga ditzake objektuak gero berorrek jasotzeko.

**Nola erabili daiteke?**

Objektuak Hapiick-en armairuetan laga ahal izateko app bat deskargatu behar da. “Oso erraza izango da erabiltzeko”, Hapiick-ekoek diotenez. Zerbitzuan alta emateko, lehenik app-a deskargatu behar da eta, ondoren, e-mail helbidea jarri eta telefono zenbakia egiaztatu, datu gehiago eman behar gabe. “Doako zerbitzua izanik, ez da kreditu txartelaren daturik sartu behar izango”, azaldu digu Haritz Elortza Hapiick-en sortzaile eta zuzendari nagusiak.

Objektuak armairuan lagatzeko, armairura gerturatu eta app-eko mapan armairu hori aukeratu beharko da. Mugikorrarekin armairuan dagoen QR kodea eskaneatu eta kutxatila zabaldu egingo da. Behin objektua lagata, app-ak QR kode bat sortuko du eta erabiltzaileak kode bat jasoko du, berriz zabaldu ahal izateko. Objektua beste pertsona batentzat bada, QR-a eta kodea berarekin partekatu ahal izango dira. “Jasotzaileak ez du zertan app-a deskargatu, armairuan kodea sartzearekin edo QR-a eskaneatzearekin nahikoa izango da”, esan digu Elortzak.

**Herriko hiru tokitan**

Hapiick-en zerbitzu hau berria da eta eibartarrok primizian erabili ahal izango dugu gaurtik aurrera, doan gainera. “Beste inon ez da horrelako zerbitzurik eskaintzen eta Eibarren hasiko dugu gurea, primizian. Zerbitzuaren arrakasta erabiltzaileen esku egongo da”, diosku Elortzak.

Hapiick-ek hiru armairu ditu herrian: Fermin Calbeton kaleko vending gunean, Kantoi gasolindegian eta Forum Sport dendan. Beraz, kontuan izan behar da euren ordutegia zein den, baina egunaren ordu askotan daude zabalik.

Objektuen tamainari dagokionez, neurri ezberdinetako kutxatilak aurkitu daitezke, eta norberak erabakiko du zein egokitzen den hobeto laga nahi duen objektuarentzat. Objektu txikienetik trolley motako maleta batera arteko gauzak (60cm x 35cm x 60cm) laga ahal izango dira. Hori bai, ezin izango da zerbitzuaren iruzurrezko erabilera egin (adibidez, armak, drogak... lagatzeko). Gainera, objektuak gehienez hiru egunez egon ahal izango dira armairuan, “beste erabiltzaileei aukera emateko”, esan digutenez.

## EA LORTZEN DUZUN AURKITZEA
**hormako entxufeari lotutako kablea**



SUDOKU

### ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 4 | | | | | | 9 |
| 7 | | | | | | 2 | | |
| | | | | 6 | 2 | 5 | | 8 |
| | | 3 | 8 | | | | 6 | |
| 4 | | | | | | | | 2 |
| | 8 | | | | 5 | 3 | | |
| 8 | | 1 | 9 | 4 | | | | |
| | | 7 | | | | | | 6 |
| 2 | | | | | | 1 | | |



soluzioa

### ZERTXOBAIT ZAILAGOA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 4 | | 2 | 3 | | |
| | 3 | 7 | | | 8 | | | 2 |
| | | | 3 | | | | 9 | 1 |
| | 4 | | | | | | | |
| 3 | | 8 | | | | 5 | | 9 |
| | | | | | | | 6 | |
| 4 | 7 | | | | 3 | | | |
| 8 | | | 2 | | | 1 | 5 | |
| | | 2 | 9 | | 4 | | | |

soluzioa



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **LUKEN**, martitzenian 13 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat maitte zaittuen aittaren eta amaren partez.



Zorionak, **IZARO**, eguenian 4 urte beteko dozuz eta. Musu erraldoia famelixa guztiaren eta, batez be, Haizearen partez.



Zorionak, **IRENÍ**, eguaztenian 11 urte bete zenduazen eta. Besarkada erraldoi bat Eder, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **ARAITZ**! 5 urte egin berri, patxo haundi haundi bat etxekuen partez. Maitte zaittugu!



Zorionak, **MARA**, bixar 13 urte beteko dozuz eta. Eta baitta zuri ere, **URKO**, 9 egingo dozuzelako abuztuaren 5ian. Musu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, **IRUNE**, domekan 9 urte beteko dozuz eta. Oso ondo pasa eguna! Asko maitte zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAREN**, "potxola", domekan 8 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Nile eta Juleren partez.



Zorionak, **GORKA**, hillaren 19xan 8 urte bete zenduazen eta. Eta oin opor luziak! Maitte zaittugu. Etxekuak.

ek!
Zure publizitatea herriko aldizkarian
688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29
LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

# Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

**Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**


**1. ETXEBIZITZA**
- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
- 2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

**4. LANA**
- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai. Urte osorako, familia edo pareja gazte formalaren bila. 3 logela, 2 bainu. Errekara begira. 750 euro hilero. Epe luzerako. 688714605.
- Etxea alokagai Deban, uda guztirako. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 komun. 607440859.
- 2/3 logelako pisua bilatzen dut alokairuan, Eibarren edota inguruetan. 607841549.
- Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berriztuta (wifia). Igogailuarekin. 688840712.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. 633832418.
- Emakumea eskaintzen da pertsonak zaintzeko. Esperientzia. 618431466.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka edota asteburuetan. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka edota asteburuetan. 642044618.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren. Interna. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren. Interna. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. 602567339.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. 613826542.
- Mutila eskaintzen da igeltsero, pintore eta informatikari bezala. 613842576.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 646821678.
- Gizonezkoa eskaintzen da igeltseritza, pintura edota lorategi lanetarako. Baita nagusien zaintzeko eta garbiketak egiteko. 643160133.
- Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertsitate ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. 688605585.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Interna. 642852854.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. 632061519.

### 4.2. Langile bila

- Higienista/auxiliarra behar da Ermuko hortz klinika batean. Haurdunaldiko baja baten ordezkapena egiteko. Uztailetik abendura, lanaldi osorako. Bidali CV: hortzklinika.4@gmail.com
- Ipuruako Jubiletxeko taberna eramateko jendea behar da. 688684509.
- Emakumea behar da neskatila bat zaintzeko irailetik aurrera, lanaldi partzialerako. 669780187.
- Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean, astean jardun bat edo birako. Bidali CV: hortzklinika.4@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko lituzke. 615701749.
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

# EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA

## Matrikula:
## Irailaren 1etik 16ra



**On-line**
**IKASGUNEA**
**plataformaren bitartez**

## DEUTSCH - ENGLISH - EUSKARA - FRANÇAIS

Ikastaro ERDIPRESENTZIALAK:
egun bat eskolan +
lan pertsonala
MOODLE plataforman

ARRASATEN eta AZKOITIAN
gela desplazatuak

## IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

*Agiri ofiziala eskura ezazu!*

**Informazio gehiago:**
Otaola hiribidea 29 EIBAR
eoieibarheo@gmail.com
943899275

@eoieibarheo

www.eoieibarheo.hezkuntza.net


EIBAR
HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL
Uda honetan
EGIN IRRIBARRE
inoiz ez bezala!
Odontologia orokorra
Haur-odontologia
Hortz-zuriketa eta estetika
Ortodontzia
Protesi finkoa eta kendu daitekeena
Kirurgia eta inplanteak
San Agustín, 4 behea (Eibar)
943 537 076 · 688 884 808
www.eibarclinicadental.com